



Ingurumen Estrategiaren  
Agiria Salla 35.zk. 2004ko Uztaila

[ingurumena.net](http://ingurumena.net)

*Zure esku dago*



# Hondakin Arriskutsuen Kudeatzaileen Sektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egiten dioten Ingurumen-ekarpena

## 2004-2006



**Aclima**

ASOCIACIÓN CLUSTER  
DE INDUSTRIAS DE MEDIO AMBIENTE  
DE EUSKADI

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEKUALDE ANTOLAMENDU  
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL  
TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

## Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Kudeaketaren Borondatezko Ingurumen Akordioa sinatu dutenen iritzia da



“Garapen Iraunkorraren Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Estrategia 2002-2020 oso garrantzitsua izan da euskal ingurumen-politikan”

Sabin Intxaurre  
Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu  
eta Ingurumen Sailburua

**E**sparru geografiko eta administratibo guztietan onartzen da legeria tradizionala ez dela nahikoa eta ez dela nahikoa izan bere kabuz ingurumenaren arazoak konpontzeko. Errealitate hori kontuan hartuz, Administrazioarentzat ez du inolako zentzurik jarduera ekonomikoak eta ingurumenaren babesa bereizten jarraitzeak.

Administrazioek sormen handiagoa eduki behar dute eta merkatutik ikasi behar dute; horrez gain, ingurumenari loturiko helburu handizaleagoak edukitzea ahalbidetzen duten tresnak aplikatu behar dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-tradizioak presio eta eragin handiak sorrarazi ditu natur baliabideetan, baina gure herriak ahalmen teknologiko, ekonomiko eta berritzaile handia edukitzea ere ahalbidetu du.

90eko hamarkadatik gaurdaino, euskal industria aldatu egin da. Ingurunearekiko lehen baino askoz ere ardura handiagoa duen sektorea dela erakutsi du. 2001ko Ingurumenaren Diagnostikoaren arabera, industriaren sektoreak eman ditu aurrerapauso handienak ekoeraginkortasunean eta autoerregulaziozko neurrien ezarpenean (kalitateko, ingurumenaren kudeaketako eta laneko osasuneko estandarrak eta arauak).

Gainera, euskal industria aitzindaria da berrikuntzaren kulturaren eta jakintza zientifikoa maila guztietan sustatzen. Horrez gain, eraginkortasunez moldatzen da fenomeno berrietara, esate baterako, globalizaziora, informazio-teknologiaren garapenera eta lehiakortasuneko eta ikerketa eta garapeneko ikuspegi berrietara.

Euskal industriaren sektoreak esparru egonkorra eta ez-loteslea eskatzen du, etorkizuneko lege-garapenei aurrea hartzeko aukera ematen diona, guztia etengabe berrikusi eta hobetzeko prozesu malgu eta adostuaren bidez epe ertainean planifikatuz.

Ilde horretatik, 2002ko ekainaren 4an “Garapen Iraunkorrerako Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Estrategia 2002-2020” onestea funtsezko urratsa izan zen Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politikan. Estrategia hori ezartzearen ondorioz, zerikusia duen eragile sozioekonomiko bakoitzak egin beharreko jarduerak hedatu egingo dira, eta tresna desberdinak erabiliko dira, ingurumen-estrategia horretan jasotzen diren helburu eta konpromisoak bete ahal izateko.

Helburu horiek betetzeko abian jarri den prozesua eragile guztiek erantzukizuna bere gain hartuz egin behar da, ingurumen-erantzukizuna guztien arteko kultura dela ulertuz. Kultura berri hori, besteak beste, Administrazioaren eta euskal sektore industrialen arteko Borondatezko Akordioaren bitartez gauzatzea nahi dugu.

Borondatezko Akordioek, beraz, jarduteko esparru gardena ezartzen dute eta, horrez gain, Administrazioei politika eta tresna legegile eta ekonomikoak bizkor eta modu errentagarrian ezartzeko aukera ematen die. Borondatezko Akordioek etekin kualitatibo garbiak ekar ditzakete, esate baterako, elkarriketarako eta lankidetzarako esparru egonkorra ezartzea enpresa eta administrazioaren artean, informazioa askoz ere gehiago partekatzea, enpresen sentikortasuna handitzea eta haien ingurumenaren kudeaketa hobetzea.

## Ingurumeneko Industrien Euskadiko Cluster Elkarte (ACLIMA)



Javier Caño  
ACLIMA lehendakaria

“Lehiakortasuna, berrikuntza eta iraunkortasuna: ingurumeneko euskal sektorearen apustua”

Ingurumeneko euskal sektorea Euskal Autonomia Erkidegoko industrializazioaren garai hoberenean sortu zen. Garai hartan, industrializazioak eragiten zituen poluzio-arazo garrantzitsuak zeuden tokietan ingurumen-irtenbideak garatu zituzten. Beraz, sektore horrek esperientzia handia du, eta, dibertsifikatu egin zen behar berrii erantzun emateko, besteak beste, hondakinak kudeatzeko. Horrela gauzatu zen, hain zuzen, borondatezko hitzarmena sinatu duen jarduera-sektorea. Sektorea asko garatu da ingurumen-kudeaketako filosofia berriari erantzuteko; alegia, lehentasun handiagoa ematen zaie minimizazioari, prebentzioari eta birziklatzeari, hondakinak deuseztatzeari eta “hodiaren amaierako” irtenbideei baino. Horretarako, funtsezkoak dira berrikuntza eta garapen teknologikoa.

Horrenbestez, enpresen arteko eta Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia sustatzeko eragileekiko (Eusko Jauriaritza, merkataritza-ganberak, Unibertsitatea, zentro teknologikoak...) lankidetzan oinarrituta, lehiakortasuna hobetzeko helburua duen tresna dute Ingurumenaren Euskal Sektoreak, oro har, eta Hondakinak Kudeatzeko Sektoreak, partikulariki. Tresna hori da, hain zuzen ere, Ingurumeneko Industrien Euskadiko Cluster Elkarte, ACLIMA, eta Borondatezko Hitzarmena sinatu du Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Kudeatzeko Sektorearekin eta enpresekin.

Hondakinak Kudeatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko sektorea, kontrolatu beharreko hainbat ingurumen-inpaktu eragiten dituen ekoizpen produktiboa izateaz gain, tresna egokia da hondakinak ekoizten dituzten enpresek indarrean dauden legeak bete ditzaten. Beraz, sektore

garrantzitsua da Garapen Iraunkorraren Euskal Estrategia betetzeaz eta, hartara, Euskal Autonomia Erkidegoko hondakinaren kudeaketa hobetzeaz ari garela, eta bat datoz horretan Administrazioa eta Sektorea bera.

Hori dela eta, Borondatezko Hitzarmena oso garrantzitsua da. Izan ere, hitzarmen horrekin, irtenbide aproposik ez duten hondakin zikloak amaitzeko arloan lan egin nahi da, baita minimizazioan, birziklapenean eta balorizazioan –hondakinak ezabatzea baztertuta– oinarritutako irtenbideak garatzen jardun ere, hala, Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin-planen helburuak betetzeko aukera izango baita. Horretarako, nahitaezkoa da administrazioaren eta enpresen arteko lankidetzaren iraunkortasuna –hitzarmena indarrean egongo den denboralditik haratago, behar bada–, sektorearentzat negozio-aukerak izango diren irtenbideen bideragarritasun teknikoa aztertzeko.

Sektoreak ingurumenean eragin ditzakeen inpaktuak ahalik eta gehien txikitzeko borondateari dagokionez, aipatzekoa da hitzarmena sinatu dutela Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko Zuzentarauaren (IPPC) mendean dauden enpresek eta ez daudenek –baina, ingurumenaren kudeaketari dagokionez, “arauaz haratago” joan behar dela uste dutenak–. Halaber, aipatzekoa da, ISO 14.000 ziurtagiria dutela (ingurumena kudeatzeko tresnaren adierazgarri gisa aipatuta) sinatzaile askok (sektoreko enpresen % 47,61ek dute, eta, Euskal Autonomia Erkidegoan, enpresen % 0,32k dute batez beste). Sinatzaileek ingurumena kudeatzeko tresna hori edo bestelako tresnak (Ekoscan/EMAS) lortzeko eta GRI Iraunkortasun Memoriak egiten segitzeko konpromisoa hartu dute.

*Javier Caño*



### Hitzarmena sinatu duten enpresak



## Hondakin Arriskutsuak Kudeatzeko Sektorea Euskal Autonomia Erkidegokoan

**H**ondakinak Kudeatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Sektorea asko garatu da jardueraren hasieratik gaurdaino, eta hondakin gehiago kudeatzeko eskaintza ugaritu da –Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin-planetan behin eta berriro azaldu direnak–. Bestalde, hondakin arriskutsuak kudeatzeko prozesuak garatu dira, eta, ahal denean, lehentasuna ematen zaie birziklatzeari eta balorizazioari eta baztertu egiten dira ezabatzeko ohiko irtenbideak (geldotzea, tratatzea edo isurtzea).

Horren ondorioz, sektore dibertsifikatu eta berritzailea lortu da; Garapen Iraunkorrerako Euskal Estrategian azaltzen diren eta gero eta gehiago behar bihurtzen ari direnei (bai kopuruz eta bai kalitatez) erantzun emateko prestatu da.

Hala, arlo horretan, eduki metalikoko hainbat industria-hondakin klasiko birziklatzeko irtenbideak garatzeaz gain (altzairugintzako hautsak, aluminioaren ekoizpen-hondarrak, etab.), kontsumo handiko produktuak erabili eta gero sortzen diren hondakinak (pilak, txatar elektriko eta elektronikoak, etab.) birziklatzeko teknologiak eta masiboki sortzen diren eraikuntzako hondakinak birziklatzeko prozesuak garatu dira eta Eusko Jaurlaritzari Lurzoru Poluituen politika garatzen lagundu zaio, lurzoru poluituak garbitzeko teknika aurreratuak garatuz.

Baina, gaur egun, hondakinak tratatzeko aldaera espezifiko ugarian aurrera egiteko aukera asko daude oraindik –Eusko Jaurlaritzaren Hondakinak Kudeatzeko Planetan azaltzen dira–; batez ere, egun dauden irtenbideak garatzeko aukerak dira, ingurumenaren ikuspegitik prozesu onuragarriagoak lortzeko.

Hondakinak Kudeatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Sektoreak ingurumen-administrazioarekin sinatu duen Borondatezko Hitzarmenari esker eta hitzarmena garatzen ezarriko den lankidetzari esker, prozesu eta zerbitzu berriak identifikatu eta garatzeko aukera izatea espero da, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-balantzea gero eta positiboagoa izan dadin eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresentzat aukera aproposak eragin ditzaten.

Hori da sektorearen borondatea, eta, horretarako, berrikuntzaren aldeko eta Administrazioarekin lankidetzan aritzeko apustua egin du.

## Hondakin Arriskutsuen Kudeatzaileen Sektorearen ingurumen-eraginak Euskal Autonomia Erkidegoan


Sektoreak erabiltzen dituen lehengaien ziklo-itxierak eta tipologiai aintzat hartuta (hondakin arriskutsuak), ezinbestekoa da behar bezalako kontrola egitea eta izan ditzaketen inpaktuen jarraipena egitea gehienezko minimizazioa ziurtatzeko. Hori ondorioztatzen da 2002ko Ingurumen Diagnostiko Sektoriala eta 2002ko emisioei eta isurketei buruzko lehen EPER inbentarioko emaitzak aztertuta; horiek adierazten dute EAEko hondakin arriskutsuen kudeatzaileen ezaugarri nagusia ez direla ingurumen-inpaktu handiak, baizik eta beste industria-sektore batzuek sortutako inpaktuak gutxitzeko ahalmena.

- **Airerako emisioak:** Berotegi-efektua eragiten duten gasen % 0,13 eta atmosferaren azidotzaileen eta troposferako ozono-aitzindarien emisioen % 2 eragiten du sektoreak, Euskal Autonomia Erkidegoko guztizko datuak aintzat hartuta (Iturria: 2002ko EPER Inbentarioa).
- **Isurpen likidoak:** IPPC Legeak eragiten dion Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektorearen isurpen likidoen % 0,5 sortzen du (Iturria: 2002ko EPER Inbentarioa).
- **Hondakin arriskutsuak:** Sektore honek sortzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin arriskutsuen % 1. Baina Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako hondakin arriskutsuen % 38 bakarrik balorizatzen da (Iturria: 2001eko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa).
- **Hiri-hondakinak:** Sektore honek sortzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin arriskutsuen % 1. % 27,5 balorizatzen dira. (Iturria: 2003ko Ingurumen Adierazleak).

Adierazle horiek hobetzeko, beharrezkoa da prozesuen eraginkortasuna optimizatzeko ahalegin handia egitea, baita egungo hondakin-korronteak eta sortzen ari direnak balorizatzeko teknologia berriak garatzea eta ezartzea ere, teknologia-berrikuntzako prozesu jarraituaren bidez. Izan ere, hori guztia oinarritzeko da merkatu zorrotzetan sektorearen lehiakortasuna mantentzeko.


Hondakin arriskutsuen kudeaketako sektoreko enpresek sinatutako akordioak agerian uzten du lehentasunezko ingurumen-gailetan hobetzeko konpromisoa duela eta garapen iraunkorraren alde egiten duela.

## Hondakin Arriskutsuen Kudeaketaren Bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan



Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen 2001eko Inbentarioa.

## Euskal Autonomia Erkidegoan Kudeatutako Hondakin Arriskutsuen ehunekoen banaketa



Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen 2001eko Inbentarioa.



## Euskal Autonomia Erkidegoa garapen iraunkorrerantz: Garapen Iraunkorraren Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Estrategia (2002-2020)

**E**uskal Autonomia Erkidegoan “garapen iraunkorra” kontzeptua arau-izaerarekin ingurumena babesteko lege orokorrean jaso zen lehenengo aldiz (otsailaren 27ko 3/1998 legean). Ordudanik, kontzeptu horrek adierazten dituen printzipioak lortzeko egin den aurrerapauso handiena “Garapen iraunkorraren Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-estrategia (2002-2020)” sortzea izan da. Dokumentu horretan uskal Autonomia Erkidegoak epe luzean dituen ingurumen-helburuak jasotzen dira, bai eta “iraunkortasuna” delakoa lortzeko bete beharreko helburu, estrategia-ildo eta konpromisoak ere.

**Garapen iraunkorra, iraunkortasuna.** Termino hauekin honakoa adierazi nahi da: euskal gizarte osoak ingurumenerako eta gizarterako lortu behar dituen hainbat xede ezartzea, oraingo belau-naldiarentzat bizi-kalitate ezin hobea bermatu ahal izateko, etorkizuneko belaunaldien ongizatea arriskuan jarri gabe.

Helburu orokor hori betetzeko, ezinbestekoa da gizarteko eragile guztien laguntza: industriako-ena, ekonomikoena, sozialena. Euskal industriaren baterako parte-hartze hori “Garapen iraunkorraren Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-estrategia (2002-2020)” dokumentuan jasotako konpromiso batzuetan zehazten da, esate baterako, euskal administrazioak lehenik IPPC 96/61 arteztarauaren eraginpean dauden industria-sektoreekin borondatezko akordioak sinatzea eta, ondoren, baita gainerako industria-sektoreekin ere.

## Borondatezko Ingurumen Hitzarmenak: Hondakin Arriskutsuen Kudeaketa Sektoreko 23 enpresen sinadura elektronikoa

**H**ondakin Arriskutsuen Kudeaketa Sektoreak borondatezko hitzarmena sinatu zuen 2004ko ekainean, Bilbon antolatutako ekitaldi publiko batean. Horrekin, bost dira, dagoeneko, Euskal Autonomia Erkidegoan borondatezko hitzarmena sinatu duten sektoreak –zementugintza, sektore kimikoa, altzairugintza eta oregintza/papergintza/kartoigintza–. Sektore horietako ehun bat enpresek hartu dute prozesuak ingurumenaren ikuspegitik hobetzeko konpromisoa eta ingurumen-legeak betetzeko epeak aurreratzeko konpromisoa –eta legeak eskatzen dituenak gainditzeko konpromisoa ere hartu dute–.

### Borondatezko akordioek hiru helburu dituzte:

Lehenik eta behin, enpresa sinatzaileen emisio eta isurketak optimizatzea, hondakinak minimizatzea edota haien balorizazioa areagotzea; bigarrenez, ISO 14001 edo EMAS ingurumenkudeaketako sistema baten bidez ziurtatzea; eta, azkenik, Prebentzio eta Kontrol Integraturako Arteztarauan (IPPC 96/61 Arteztaraua) eta hura egokitzen duen 16/2002 Legean proposatutako helburuak lortzea.



Enpresa bakoitzak zuzenean sinatzen ditu borondatezko hitzarmenak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Ingurumen Sailarekin, eta horietan ezartzen dira erakunde bakoitzak lortu beharreko ingurumen-helburuak, hitzarmenaren segimendua egiteko adierazleak eta Administrazioaren beraren ordain-ematea. Segimenduko adierazleak hiru motakoak dira: banakakoak, sektorekoak eta lurraldekoak. Horri esker, helburuen lortze-maila ikuspegi desberdinetatik ebaluatu daiteke.

Akordio hauen gakoetako bat hauxe da: bai enpresek eta bai administrazioak legeriak eskatzen duena betetze hutsa baino haratago iristea nahi dutela. Horretarako, enpresak eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila elkarlanean hasi dira, eta bat etortzeko nahiz proposamenak trukatze giro aparta sortu da alde bientzat. Akordioak erreferentzia-esparru egonkorrak bihurtuko dira enpresentzat epe luzean.



## Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Kudeatzaileen Sektorearen ingurumen-helburuak

**B**orondatezko Akordio honetarako hainbat helburu finkatu dira, bi aldeek sektorearen egoera aztertzeko egin duten diagnostiko xehatuaren ondorioz. Halaber, helburu horiek zehazteko “Garapen Iraunkorraren Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Estrategia (2002-2020)” dokumentuak jasotzen dituen proposamenak ere aintzat hartu dira. Helburu bakoitza xehetasunez zehazten da, eta ezartzeko epeak eta betetzeko egin behar diren ekintzak azalduta daude.

### Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Kudeatzaileen Sektorearen ingurumen-helburuak


HELBURUAK	ZER ESAN NAHI DU?	ZERTARAKO BALIO DU?
<b>Lurraren poluzioa prebenitzea.</b>	Lurraren poluzioa prebenitzeko, kontrolatzeko eta horren jarraipena egiteko neurriak hartzea.	Hondakinak manipulatzean, biltegitratzean nahiz prozesuetan lurrari eragiteko arriskua minimizatzeke.
<b>Instalazioak egokitzea/berritzea.</b>	Ekipo berriak instalatzea edo daudenen eraginkortasuna hobetzea hondakinak bereizteko eta bolumena, materialen kontsumoa, ikus-inpaktua eta abar minimizatzeke.	Hondakinak birziklatzeko aukerak areagotzeko eta inpaktuak minimizatzeke.
<b>Hondakinen balorizazioa areagotzea.</b>	Gaur egungo kudeaketa optimizatzea eta ezabatzen ari diren korranteak balorizatzeke alternatiba berriak sortzea.	Hondakinak isuri eta ingurumenari eragin diezaieten saihesteko, hondakinek dituzten baliabideak beste prozesu batzuetan aprobetxatuz.
<b>Airerako eta uretarako emisioak zaintzea, kontrolatzea eta murriztea.</b>	Isuritako poluitzaileen zaintza areagotzea eta poluitzaileak murrizteke neurriak ezartzea.	Gure airearen eta uraren kalitatea hobetzeke eta ingurumeneko eta osasuneko kalteak murrizteke.
<b>IPPCren eskakizunak betetzeko modua erraztea eta prestatzea (BREF aplikatzeko gida teknikoa, Ingurumen Baimen Integratua) eta IPPC 2007a baino lehen ezartzea.</b>	“Poluzioa Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Lege Integratua” enpresei egiten dizkien eskakizunei eta ingurumenean kalterik handiena egiten duten industria-sektoreetan aplikatzen diren eskakizunei aurrea hartzea.	Ingurumen-legedi horren eskakizunei aurrea hartzeke, bertan ezarritako epeetarako beteko direla ziurtatzeke.
<b>Ekoscan edo ISO 14001 arauaren edota EMAS araudiaren arabeko sistema garatzea eta ezartzea ingurumena kudeatzeko.</b>	Jardueren ingurumen-alderdiak identifikatu eta ebaluatzea eta gutxitzeke eta kontrolatzeko neurriak eta bitartekoak ezartzea, urteko ingurumen-programan jasotako helburuak eta xedeak aintzat hartuta eta horietan guztietan aplikatzeko baldintza legalak kontuan izanda.	Enpresaren kudeaketa globalean ingurumen-hobekuntza bateratzeko erakundeen inpaktuak minimizatzeke; hori, gainera, kanpoko eragile batek ziurtatuko du.
<b>GRIren irizpideen araberako iraunkortasun-memoriak publikatzea.</b>	Erakundeen ingurumen-portaerarekin, portaera sozialarekin eta ekonomikoarekin zerikusia duten alderdiak jakinaraztea gizarteari.	Informazioaren gardentasuna eta ingurukoekiko elkarrikteta abiaraztea sustatzeke.





## Hondakin Arriskutsuen Kudeatzaileen Sektoreak “Garapen Jasangarriaren Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Estrategia 2002-2020” betetzeko emandako laguntza

### Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen-estrategia 2002-2020



Borondatezko hitzarmen honen funtsezko alderdietako bat da enpresa sinatzaileek eta Euskal Administrazioak osatutako Jarraipenerako Batzordeak aldizka hitzarmena ikuskatuko duela, egon daitezkeen arazoak antzemateko eta aukera berriak aprobetxatzeko helburuarekin. Horretarako, bi aldeek behar diren baliabide guztiak ezarriko dituzte elkarri zeta ireki eta irmo baten esparruan.





## Etorkizunari begira: Nolakoa izango da Hondakin Arriskutsuen Kudeatzaileen Sektorea 2006an?

- Borondatezko Hitzarmena sinatzen duten eta IPPC Legeak eragiten dien instalazioek dagoen Ingurumen Baimen Integratua izango dute. Horrela, Europako industria-instalazio handiei eskatutako ingurumen-baldintza guztiak beteko dituzte (hondakinei, emisioei, isurketei eta abarri buruzkoak).
- Sektoreak aurrea hartuko die gainerako industria-sektoreei luraren poluzioa prebenitzeko eta zuzentzeko etorkizuneko legean garatutako baldintza legalak betetzeari dagokionez.
- Egun hondakindegietan deuseztatzen den hondakin-kantitatea murriztu egingo du sektoreak, hondakinak beste jarduera batzuetarako lehengai gisa balorizatuz.
- Sektoreak, oro har, ingurumena kudeatzeko sistema bat ezarri eta ziurtatuko du, eta sistema horrek ingurumen-portaera etengabe hobetzeko bitartekoak sendotuko ditu. Horrez gain, aurrera egingo du ingurukoekiko komunikazioan, iraunkortasun-memoriak publikatuta.



## Helbide ingeresgarriak

- <http://www.ingurumena.net>
- <http://www.ihobe.net>
- <http://www.nrg4sd.net>
- <http://www.aclima.net>
- <http://www.asegre.com>
- <http://www.obviously.com/recycle/>
- <http://www.eea.eu.int/>
- [http://europa.eu.int/comm/dgs/environment/index\\_es.htm](http://europa.eu.int/comm/dgs/environment/index_es.htm)

Borondatezo Hitzarmenen Idazkaritza Teknikoa